

# ERANSKINA. 23/24 DENBORALDIA

## PROGRAMA BAKOITZAREN GAKO BATZUK

---

### 1. ABONUA: MAHLER 3

G. Mahler: *3. Sinfonia*

Denboraldia hasteko joko dugun Mahlerren *Hirugarren Sinfonia* konpositorearen obrarik luzeena eta garai erromantikoko luzeenetako bat da. Sei mugimenduren bidez, Mahlerrek erantzukizun indibiduala eta kolektiboa gure gain hartzera animatzen gaitu, bizitza eternitatea izango balitz bezala bizi dezagun. Bidaia filosofiko bat da, materia fisikotik maitasunera, Nietzscheri eta gizakiari gorazarre eginez.

Bilboko Koral Elkarteko emakumeak eta haurrak Justina Gringyte mezzosopranoarekin batera arituko dira indar handiko obra honetan. Orkestrak Robert Treviñoren ibilbide mahleriar markatuarekin emango dio hasiera denboraldiari.

### 2. ABONUA: BRAHMS / XOSTAKOVITX

J. Brahms: *Biolinerako kontzertua*

D. Xostakovitx: *6. Sinfonia*

Indar handiko bi obra aurkeztuko dira programa honetan. Batetik, Brahmsen obra handienetako bat, 21/22 denboraldiko Brahms Festen interpretatu ez zena: *Biolinerako kontzertua*. Sergey Khachatryan biolinaren izar handiak interpretatuko du.

Bestetik, Xostakovitxen *Seigarren Sinfonia*. Konpositoreak alderdi komunistan afiliatu zenean konposatu zuen. Beti bezala, Xostakovitxek bere obren benetako zentzua ezkutatzen zuen, arrazoi politikoak tarteko. Obra idatzi zuenean, Stalinek ez erasotzeko ituna sinatu zuen Hitlerren Alemaniarekin, 1939ko abuztuan. Handik gutxira, Poloniari eraso zion. Giroa oso nahasita zegoen eta zentsura errusiarrek gero eta indar handiagoa zuen. Egileak esan zuenez, udaberriko gogo-aldartearen poza, gaztetetasuna transmititu nahi zuen *Seigarren Sinfonia* honekin.

### 3. ABONUA: RAVEL / FALLA

G. Pierné: *Ramuntcho*

M. Ravel: *Concierto en Sol*

M. de Falla: *Hiru puntako kapela*

Juanjo Mena zuzendari gasteiztarrek zuzenduko duen programa oso eklektikoa da, baina oso lotuta dago bere esentziarekin. Fallaren obra ospetsuenaren, *Hiru puntako kapela* ballet osoaren, interpretazioa nabarmentzen da. Ballet errusiarren abangoardiarekin bat egiten du, eta Londresen estreinatu zen, Pablo Picassoren

dekoratu eta figurinekin. Clara Mouriz donostiarra izango da musika espainiarraren klasiko horren protagonista.

Ravel gure orkestraren aurkezpen-gutuna da. Orain, haren *Concierto en Sol* interpretatuko du, Alfonso Gómez euskal interpretearen begiradarekin. Euskal artisten programa bat programa eklektiko eta ezin ederrago baterako.

#### 4. ABONUA: COPLAND / MAHLER

A. Copland: *Preamble for a Solemn Occasion (Hymn for the United Nations)*

G. Mahler: *1. Sinfonia («Titana»)*

Coplanden Nazio Batuen ereserki bihurtutakoaren interpretazioak Giza Eskubideen Adierazpenaren 75. urteurrena oroitzeko du. 6 minutuko obra bat da eta euskaraz errezitatuko dira testuak.

Mahler *1. Sinfoniarekin* («Titana») bueltatuko da. Harekin, denboraldiaren *leitmotiva* berreskuratuko da, eta natura bere bitartez deskribatzen duten eta sortzen eta eraldatzen duen gizakiarengan jarri nahi da arreta. *Frère Jacques* haur-kanta entzungo dugu modu saritikoan interpretatuta, Callotek *Ehiztariaren hiletan* ilustratu zuen hileta-martxa bati jarraitzeko. Juraj Valcuha zuzendari handia arduratuko da Mahler gaztearen energia titaniko guztia bideratzeaz.

#### 5. ABONUA: LAUZURIKA / RAKHMANINOV

J. Haydn: *98. Sinfonia*

A. Lauzurika: *Chillida – Elogios*

S. Rakhmaninov: *3. Sinfonia*

Sortzen eta eraldatzen duen gizakiarengan arreta jartzeak eta hori artearen bidez –inspirazio-iturri baita– egiteak Eduardo Chillidaren jaiotegunaren mendeurrena du adibide. Horretarako, Orkestrak oroimenezko obra bat enkargatu dio Antonio Lauzurikari: *Chillida – Elogios*. Herrialde-ospakizun bat izango da, eta Euskadiko Orkestrak modu aktiboan egingo du bat harekin. Denboraldi honetan –eta, agian, beti Euskadiko Orkestran–, gizakia eta artea etengabeko hausnarketan daude.

Rakhmaninovek, bere aldetik, bere jaioterriaren nostalgia zein pisutsua den erakusten digu *Hirugarren Sinfonian*.

#### 6. ABONUA: RAKHMANINOV / STRAUSS

S. Rakhmaninov: *Pianorako 2. kontzertua*

R. Strauss: *Aus Italien*

Rakhmaninoven *Pianorako 2. Kontzertuak* Marilyn Monroe protagonista izan zuen *The Seven Year Itch* filmeko xanpain, patata frijitu eta piano-musikaren sedukzio-

sekuentzia famatura eramango gaitu. Sedukzioa Federico Colliren eskuetan (lehen aldiz joko du Euskadiko Orkestrarekin).

Orkestrak Richard Straussi jarraituko dio *Aus Italien (Italiatik)* obraren bidez. Batzuen ustez, are *Sinfonia Alpinoa* baino hobea da ere. Konpositoreak 1886ko udan Italiatik egin zuen bidaia bat du inspirazio-iturri obrak.

## 7. ABONUA: VENEGAS / PROKOFIEV

S. Venegas: *At the Aegean Shores*

B. Britten: *Peter Grimes operako lau itsas interludio*

S. Prokofiev: *Alexander Nevski*

*Alexander Nevski* Prokofieven obra handietako bat da, izen bereko 1938ko filmerako soinu-bandarako sortua. Prokofieven *Alexander Nevski* heroi eta herri errusiarraren goritzea da. Prokofiev bere herriaren borroka eta irrikak –hain gizatiarrak– aldarrikatzeko beharra zuen, konpositore gisa nazioarteko arrakasta iristearekin bat. Mezzosopranorako (obra honetako aditu Olesya Petrova), abesbatzarako (Donostiako Orfeoia) eta orkestrarako zazpi mugimenduko kantata bat da.

Saskia Venegas euskal/belgikar musikagileak *At the Aegean Shores* (Egeo itsasoko kostaldean) berridatzi du. 2022ko Musikasten (Erreterria) estreinatu zuen obra, eta Egeo itsasoko errefuxiatuez mintzatzen da. Argudio humanista hori Giza Eskubideen kontzeptuarekin lotzen da, eta garrantzi handia du horrek Euskadiko Orkestraren denboraldi honetan.

## 8. ABONUA: DIE ERSTEN MENSCHEN (LEHEN GIZAKIAK (opera))

R. Stephan: *Die ersten Menschen*

*Die ersten Menschen* opera 1920an estreinatu zen Frankfurten. 2021ean, Amsterdameko Stopera instalazioetan antzeztu zen, Calixto Bieito izanik eszena-zuzendaria. Eta orain Bilbon agertuko da, Euskadiko Orkestraren eta Arriaga Antzokiaren arteko lankidetzaren batean. Rudi Stephanen *Die ersten Menschen* operaren antzezpena estatu mailako estreinaldia izango da. Adam eta Eva Paradisutik kanporatu ondorengo garaian kokatua (Genesiaren sorrera-narrazioaren arabera), analisi freudiarra egiten dio giza izaerari egilearen lan horrek, eta erdiratu egiten gaitu analisi horrekin. Eszena udaberriko paisaia bat da, eta libretoa poesia psikologiko gisa deskriba genezake. Stephanekin gizakiaren identitatea bilatzen dugu. Calixto Bieito da eszena-zuzendaria eta Robert Treviño, berriz, musika-zuzendaria (lehen aldiz zuzenduko du Euskadiko Orkestra opera batean).

## 9. ABONUA: MOZART / BRUCKNER

W.A. Mozart: *Pianorako 20. kontzertua*

A. Bruckner: *7. Sinfonia*

Azkenik, Mozart: Orkestraren azken denboraldietan oso gutxi programatu den egile bat. *Pianorako 20. kontzertu* hau bere katalogo handiko obra nabarmenetako bat da.

Brucknerren *Zazpigarren Sinfonia* bere obrarik arrakastatsuenen da. *Zazpigarren Sinfonia* erreperitorio sinfonikoko mugarrietako bat da, heren gaien zintzotasuna eta orkestrazio bikaina direla eta. Sinfonia horrekin estreinatu zen Treviño titular gisa eta, orain, Maria Jacquoten zuzendaritzapean, erlijiotasunari buruz hitz egiten duen obraren beste bertsio bat ezagutuko dugu. Maisulan honen arkitektura kolosalak katedral gotiko baten irudia iradokitzen digu, eta haren *adagioa* –ezin erlijiosoagoa– ia mirari musikal bat da.

Jacquot estreinakoz arituko da Euskadiko Orkestra zuzentzen. Lan asko egiten ari da, eta Danimarkako Operako zuzendari titularra izango da 2024tik aurrera.

## 10. ABONUA: LALO / DVORAK

A.Clyne: *This Midnight Hour*.

E.Lalo: *Biolontxelorako kontzertua*

A. Dvorak: *7. Sinfonia*

Dvoraken *Zazpigarren Sinfonia* eta Euskadiko Orkestrarako beste zuzendari berri bat: Lina González-Granados. Antonin Dvorakek bere bizitzako oso une zail batean idatzi zuen *Zazpigarren Sinfonia*. Konpositore bohemiarra ama eta haurretako bat galdu zituen, Londresko Elkarte Filarmonikoak partitura hau egiteko enkargua egin ziotean. «Tragikoa» izenez ere ezagutzen da, eta 1885ean estreinatu zen Londresen, musikariaren beraren zuzendaritzapean. Harrezkero, musikariaren katalogo sinfonikoaren obra txalotuenetako bat da.

Lalok biolontxeloaren erregistro guztiak esploratzen ditu bere *Kontzertuan*. Alban Gerhardt izen handiko biolontxelojoleak arituko da.

## 11. ABONUA: DEBUSSY / VILORIA

R. Lazkano: *Mugarri*

C. Debussy: *Nocturnes*

I. Vitoria: *Oihartzun gorriak* (erabateko estreinaldia)

C. Debussy: *La Mer*

Programa honetan, euskal sorkuntzak (Ramon Lazkanoren *Mugarri* eta Itziar Vitoriaren *Oihartzun gorriak*) eta frantses sorkuntzak daude (Debussy). *Oihartzun gorriak* orkestren artean diseinatutako enkargu berri bat da, aurreko denboraldian orkestra britainiarrekin egindako *Mamu Kantak* (G. Carpenter) bezalaxe. Honako honetan, Euskadiko Orkestra Real Filharmonía de Galicia orkestrarekin batera egin du proiektu hau; haren zuzendari titular izendatu berri Baldur Brönnimannek 2024ko udaberrian estreinatuko du lan hori.

Claude Debussyk bere hizkuntza inpresionistaren bikaintasuna lortu zuen *La mer* obrarekin; olatuen jokoa eta haizearen elkarrizketa harrapatzen ditu. Gainera, *Nocturnos* orkestra eta abesbatzarako triptiko sinfonikoa entzungo da. Hiru

mugimendu ditu: *Nubes*, *Fiestas* eta *Sirenas*. Azken mugimendu horretan (itsas kutsu handikoa da), *Vocalia Taldea Gasteizko emakumezkoen abesbatza arituko da*.

## 12. ABONUA: DUTILLEUX / STRAUSS

H. Dutilleux: *Correspondances*

R. Strauss: *Symphonia Domestica*

Dutilleuxek bere *Correspondances* obrarekin eta Strauss bere *Symphonia Domestica*rekin, unibertso desberdinetatik bizitza pribatuari eta mundukoari kolore-paleta ahalik eta zabalena jarriko diote. Bi obrak etxekoa, goxoa eta intimoa den horrekin erlazionatuta daude.

Dutilleuxen obraren izenburuak gutunak idazteari nahiz zentzumeneren eta munduaren arteko «korrespondentzia» sinbolikoei egiten die erreferentzia. Obra gizadiak kosmosean duen tokiaz kezkatuta dauden zenbait egileren gutunetan eta poematan oinarritzen da. Gutun horietako bat Vincent Van Goghek Théo anaiari idatzi zion eta, horretan, bere *Gaueko kafetegia* obra deskribatzen du. Straussen obra konpositoreak berak hainbeste baloratzen zuen etxeko bizitza seguruaren isla musikala da eta, horrela izanda, harmoniaz transmititzen ditu eguneroko gauzak eta familia-bizitza.